

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure produktua berezi samarra dela ikusita beharrezkoa ikusten dugu bezeroekin aurrez aurreko harremana izatea, hau da, laguntza pertsonalizatua eskaintzea. Horregatik kanalaren arloan esan bezala, zerbitzu automatizatu bat izango dugu, hau da, webgune bat sortuko dugu bezeroek behar duten informazio guztia izan dezaten, baina gure produktua dendetan soilik salduko dugu, aurrez aurreko kontaktua izanez. Behar izanez gero mugikortasun arazoa dutenentzat etxeko zerbitzua eskainiko dugu.

Hori dela eta, ikusita gure produktua erosi ahal izateko gurekin zuzeneko harreman izan behar dela, beharrezkoa ikusten dugu Euskal Herriko puntu ezberdinetan dendak ezartzea. Hala ere, produktu standar batzuk bidaliko genizkieke zenbait ortopedia dendei bezeroetatik gertuago egon ahal izateko eta horrela bertako dendariak gure produktuaren inguruko informazioa azaltzeko. Kasu hauetan, ez genuke bezeroekiko zuzeneko harremana izango.

Hasiera batean, hiru izango lirateke gure negozioaren abiapuntua: bat Donostian, bestea bat Gasteizen eta azkena, Bilbon. Hala ere, beste lokal orokor bat edukiko genuke Donostian bertan oinetakoak ekoizteko, eta gero, behin eginda daudela, garraiorako furgonetarekin denda bakoitzetara banatuko genituzke.